


Euskal AEko industria-jarduera %1,2 gehitu zen 2015eko martxoan

Aurreko hilarekin alderatuta %1,7 gehitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2015eko martxoan %1,2 gehitu zen Euskal AEko industria-produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2014ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %1,7 gehitu zen Euskal AEko industria-produkzioa, aurreko hilarekin, 2015eko otsailarekin alderatuta.



2015eko martxoan, 2014koaren aldean: *Kontsumo ondasunetan* %+6,8. Hauen barruan, *Iraunkorretan* %+13,8, *Ez-iraunkorretan* %+4,4. *Energian* %-8,5, *Ekipo-ondasunenak* %+4,0; *Bitarteko ondasunenak* %-0,5.

2015eko otsailaren aldean, 2015eko martxoko hil arteko aldaketak: *Energian* %+1,1, *Bitarteko ondasunetan* %+1,4, *Ekipoko ondasunetan* %+3,3, *Kontsumo-ondasunetan* %-1,6. Azken hauen barruan, *Iraunkorretan* %-4,8 eta *Ez-iraunkorretan* %-0,4.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkundeak 2015eko martxoan, urte artean: *Elikagai-industriak, edariak eta tabakoa* %5,1; *Makineria eta ekipoa* %4,5.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,3
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-7,7
09 - Kautxua eta plastikoak	-0,3
13 - Makineria eta tresneria	4,5
14 - Garraio-materiala	-8,1
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	5,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-0,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,3

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Jaitsierarik handienak urte artean: *Garraio materiala* %8,1; *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* %7,7.

Martxoko Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera lurraldeetan: Bizkaian %+5,0; Gipuzkoan %+2,0, Araban %-6,7. Hil artean, 2015eko otsailaren aldean: Araban %-1,7, Bizkaian %+5,0, Gipuzkoan %+0,4.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2015eko martxoa

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mar2015/Mar2014	M(Mar2015)/M(Mar2014)*	Mar2015/Ots2015	Ots2015/Urt2015
Indize orokorra				
Euskal AE	1,2	0,0	1,7	-0,3
Araba/Álava	-6,7	-6,3	-1,7	1,8
Bizkaia	5,0	3,7	5,0	-5,3
Gipuzkoa	2,0	-0,1	0,4	4,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	6,8	7,7	-1,6	-0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	13,8	16,9	-4,8	-0,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,4	4,6	-0,4	-1,2
Ekipo-ondasunak	4,0	0,2	3,3	4,3
Bitarteko ondasunak	-0,5	-2,3	1,4	1,0
Energia	-8,5	-2,2	1,1	-14,7

(*) 2015eko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2014ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua